O. ERANSKINA. - JAKINARAZPENEI ETA APLIKATZEKO HITZARMEN KOLEKTIBOEI DAGOKIENEZ, ENPRESA LIZITATZAILEAREN IDENTIFIKATZEKO DATUAK[111]

Nik neuk, ........................................................................ ........................................................jauna/andrea naizen honek (NAN zk.: ..........................,..................)

nire izenean edo ordezkatzen dudan pertsona juridikoaren izenean.

..............................................................................................................................................................................................................

............(*jarri enpresaren sozietate-izena eta IFK z.:*...............................), klausula edo baldintza administratibo berezien agirian jasotako eran egiaztatzen dudana, honako hau adierazten dut,

1.- Identifikazio-datuak.- Lizitazio honetan posta elektroniko bidez mota guztietako errekerimendu, komunikazio eta jakinarazpenak lehentasunez egiteko datuak -legeak ezartzen dituen ondorio juridikoekin- honako hauek direla:
Posta elektronikoaren helbidea (gutun-azalen kanpoko aldean jarriko den berbera izango da): ..............................................................................

.........................................................................................

Helbidea (kalea, zenbakia, solairua, posta kodea, udalerria eta probintzia):

Telefono zk.: ...................................................................... Fax zk.: ...................................................................

Harremanetarako pertsona: ..............................................................................................................................................................................................................

2.- Araudia betetzea.- Eskaintza Europar Batasuneko zuzenbidean, estatuko zuzenbidean, hitzarmen kolektiboetan edo Estatua lotesten duten emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruz aplikatzekoa den araudian eta gizarte, ingurumen eta lanaren arloko nazioarteko zuzenbidearen xedapenetan ezarritakoaren arabera egin da, eta kontratua gauzatzeko lanetan parte hartuko duten langileei aplikatu beharreko lan-eskubideak bermatuko dira.

Kontratistak konpromisoa hartzen du, produkzio-kate osoan langileen oinarrizko eskubideak errespetatzeko eta Lanaren Nazioarteko Erakundearen oinarrizko konbentzioak betetzeko; batez ere, honako hauek.

- 29. eta 105. Konbentzioak, bortxazko lanak desagerrarazteari buruzkoak.
- 87. eta 98. Konbentzioak, askatasun sindikalari, elkartzeko askatasunari eta negoziazio kolektiboari buruzkoak.
- 100. Konbentzioa, balio berdineko lanetan gizonen eskulana eta emakumeen eskulana berdin ordaintzeari buruzkoa.
- 111. Konbentzioa, lana emateko eta lan-baldintzak ezartzeko orduan diskriminatzearen aurkakoa (arraza, kolorea, sexua, erlijioa, iritzi politikoa, jatorri nazionala edo jatorri soziala direla-eta).
- 138. Konbentzioa, esplotazioa eta umeen lana ezabatzeari buruzkoa.
- 182. Konbentzioa, haurren lan txarrenak debekatzeari eta berehala ezabatzeko ekintzari buruzkoa.

3.- Desgaitasuna duten pertsonak enplegatzeko legezko betebeharra.- Kontratuaren adjudikaziodun izanez gero, kontratuak dirauen bitartean, kontratistak betebehar hauek izango ditu: plantillaren % 2 desgaitasuna duten pertsonak izatea, gutxienez, enpresak 50 langile edo gehiago baditu, Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren Testu Bateginaren 42. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrita (azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuak onartu zuen testu hori), edo apirilaren 8ko 364/2005 Errege Dekretuan ezarritako ordezko neurriak ezartzea. Konpromisoa hartzen dugu kontratuaren arduradunaren aurrean egiaztatzeko aipatutako betebeharra

FUNDACIÓN BIZKAIA BIZKAIALDE FUNDAZIOA

betetzen dugula. Arduradunak eskatzen duenean egingo dugu, kontratuaren indarraldian edozein unetan, edo, edonola ere, azken faktura bidali baino lehen.

**4.- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko legezko betebeharra.**- Kontratuaren adjudikaziodun izanez gero, kontratuak dirauen bitartean, kontratistak emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko betebeharra du, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legean ezarritakoaren arabera. Eta .......... langile dituela aitortzen du. Gainera, berdintasun plan bat duela egiaztatzeko konpromisoa hartzen du, bai legezko betebeharra duenean (250 langile baino gehiago), bai plana izateko betebehar konbentzionala duenean. Kontratuaren arduradunak eskatzen duenean egingo da hori, kontratuaren indarraldian edozein unetan, edo, edonola ere, azken faktura bidali baino lehen.

**5.- Berdinketak hausteko irizpide espezifikoak.**- Berdinketak hausteko irizpideak egiaztatzeko dokumentazioa berdinketa gertatzen den unean aurkeztu beharko da, baldin eta, adjudikazio-irizpideak aplikatu ondoren, berdintasuna gertatzen bada. Proposamenak aurkezteko epearen amaiera da ezarritako betekizunak bete diren jakiteko unea:

☐ Desgaitasuna.- Horretarako emandako ziurtagiri bidez edo dagozkion agirien bidez egiaztatu behar da: a) Enpresaren plantillako langileen 100eko 2 baino gehiago desgaituak direla, eta b) Desgaitasuna duten plantillako langile finkoen portzentajea.

☐ Gizarteratzeko enpresa.- Abenduaren 13ko 44/2007 Legean arautzen diren laneratzeko enpresen kasuan, izaera hori egiaztatu beharko dute ziurtagiri bidez edo dagozkion agirien bidez.

☐ Irabazteko asmorik gabeko erakundeak.- Izaera hori egiaztatu beharko da, kasuan kasuko erregistro ofizialean inskribatutako estatutu edo sortze-arauen bitartez.

☐ Bidezko merkataritza.- Bidezko merkataritza-erakunde aitortzen dituzten frogagirien bidez egiaztatu behar da.

☐ Emakumeen eta gizonen berdintasunerako lankidetza erakundea.- Egiaztatu egin behar da, erakunde publiko batek helburu horretarako emandako ziurtagiri bidez.

**6.- Azpikontratazioa, gauzatzeko fasean.**-

☐ % ........... azpikontratatzea aurrez ikusten dut ( *Ehunekoetan adierazi, eta gehienez bi hamartar jarri. Ehuneko horrek, guztira, ezin izango du gainditu agirietan ezarritako muga, edo, halakorik ez badago, lizitazioa arautzen duen kontratuen arloko araudian adierazitako muga. Halaber, ehuneko horrek bat etorri behar du banakatutako ehunekoen baturarekin)* *kontratuaren zenbatekotik, banakapen honen arabera:*

Azpikontratatuko den kontratuaren partidaren edo zatiaren izena: ......................................................................................

Azpikontratistaren izena/sozietate-izena edo enpresa-profila: ......................................................................................

Zenbateko osoa hartuta suposatzen duen ehunekoa (ehunekoetan adierazi eta gehienez bi hamartar jarri): ......................................................................................

☐ EZ dudala aurrez ikusten azpikontrataziorik egitea

☐ Agirietan azpikontratatzeko ezarritako betebeharra betetzeko, kontratuaren zati hori ...................................................... enpresari azpikontratatuko diot. Enpresa horrek behar den gaikuntza profesionala edo sailkapena du (Agirietan kontratuaren zati bat azpikontratatu behar dela

ezartzen denean).

Azpikontratazioril eginez gero, ordezkatzen dudan enpresak SPKLren 216. 4 artikuluan administrazioaren eta kontratistaren arteko harremanetarako ezarritakoak baino kaltegarriagoak izango ez diren epeen barruan ordaindu beharko die adjudikaziodunak azpikontratistei edo hornitzaileei itundutako prezioa, eta kontratista nagusiak azpikontratistaren edo hornitzailearen faktura -data eta dagokion aldia zehaztuta- onartzen duenetik zenbatuko dira epe horiek.

## 7.-Hitzarmen kolektiboa eta soldata.-

Adjudikaziodun gertatuz gero, kontratuaren xede den jarduera egiten duten langileei aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboa hau izango da:

☐ BAI, badu aplikatzeko hitzarmen kolektiboa.

☐ Ezdu aplikatzeko hitzarmen kolektiborik (adierazi dagokion aukera).

(Bete bakarrik aplikatzeko hitzarmen kolektibo bat ezarri behar bada)
Hitzarmenaren izena ........................................................................................................................

Aldizkari ofizial honetan argitaratua: ..........................

Agitalpen-data:......................................

Adjudikaziodunak hitzarmen kolektiboan jasotako soldata ordaindu beharko du, kontratua gauzatzen den denbora guztian, betiere langileari dagokion lanbide-kategoriaren arabera, eta ordaintzekoa den soldata ezin izango da, inola ere, soldata hura baino txikiagoa izan.

Eta hala ager dadin eta behar diren ondorioak izan ditzan adierazten dut (Tokia, data eta sinadura.)).

Aldi baterako enpresa-elkarteen kasuan, 0. ERANSKIN bakarra beteko da.

## 1. ERANSKINA – ESKAINTZA EKONOMIKOA

Nik, ________________________________ jaunak/andreak (NANa: ___________), nire izenean edo ordezkatzen dudan pertsona fisiko/juridiko honen izenean jarduten dut: _________________________________________ *(enpresaren izena adierazi)*. Ordezkatzen dudanaren IFZ hau da: ___________. Daukadan ordezkaritza administrazio klausula berezien pleguan zehazten den moduan egiaztatzen dut.

Honako hau adierazten dut:

1. Badakidala Bizkaia Bizkaialde Fundazioak ______________________________________________________________________________________ kontratua adjudikatzeko prozedura hasi duela *(kontratuaren xedearen izen osoa jarri behar da karatulako A1.- KONTRATUAREN XEDEA atalean aipatzen den modu berean)*.
2. Aztertu ditudala eta ezagutzen ditudala kontratua arautzen duten preskripzio teknikoen pleguak eta administrazio klausula berezien pleguak.
3. Halaber, ezagutzen ditudala administrazio klausula berezien pleguko lehenengo klausulan aipatzen diren legezko eta arauzko testuak.
4. Ados nagoela aurreko ataletan aipatutako agiri, legezko testu eta araudiekin, oso-osorik onartzen ditudala eta haiei guztiei men egiten diedala batere aldaketarik gabe nire borondatez.
5. Goian aipatutako kontratua gauzatzeko konpromisoa hartzen dudala, honako zenbateko honetan:

| | | |
|---|---|---|
| PREZIOA –BEZIK GABE–<br>*Eskainitako zenbatekoak ezin du 100.000 euroko kopurua gainditu.* | ___________________ €[1] | |
| BEZ | ____ % | __________ €[2] |

*Lekua, data eta sinadura.*

[1] Zenbatekoa eurotan, gehienez 2 hamartar. Zenbatekoak gehiago edo gutxiagoz biribildu behar dira, hurbilen dagoen euro zentimora betiere.

[2] BEZ-aren zenbatekoa eurotan, gehienez 2 hamartar. Zenbatekoak gehiago edo gutxiagoz biribildu behar dira, hurbilen dagoen euro zentimora betiere.

**2. ERANSKINA – ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, SEKTORE PUBLIKOKO KONTRATUEN LEGEAREN TESTU BATEGINAREN 60. ARTIKULUAK KONTRATATZEKO EZARTZEN DITUEN DEBEKU-EGOERETAKO BATEAN ERE EZ DAGOELA ADIERAZTEKO**
*(pertsona fisikoa/pertsona juridikoa)*

Nik, ______________________________ jaunak/andreak (NANa: __________), nire izenean edo ordezkatzen dudan pertsona fisiko/juridiko honen izenean jarduten dut: ______________________________ (*enpresaren izena adierazi*). Ordezkatzen dudanaren IFZ hau da: __________. Daukadan ordezkaritza administrazio klausula berezien pleguan zehazten den moduan egiaztatzen dut.

Honako hau adierazten dut:

Ez behean sinatzen duen pertsona, ezta ordezkatzen dudan pertsona fisikoa/juridikoa, ez sozietatearen gobernu-organoak osatzen dituzten pertsonak (pertsona juridikoa bada) ez gaudela Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartu duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 60. artikuluak kontratatzeko ezartzen dituen debeku-egoeretako batean.

Orobat, adierazten dut goian aipaturiko enpresak egunean dituela zerga-betebeharrak zein Gizarte Segurantzarekikoak.

Eta hala ager dadin eta behar diren ondorioak izan ditzan adierazten dut.

*Lekua, data eta sinadura.*

<u>3. ERANSKINA – LIZITATZAILEEN ERREGISTROAK EMANDAKO ZIURTAGIRIAN JASOTZEN DIREN INGURUABARRAK ORAINDIK ERE BALIOZKOAK DIRELA ETA INDARREAN DAUDELA ZIURTATZEKO ADIERAZPENA</u>

Nik, ______________________________ jaunak/andreak (NANa: __________), nire izenean edo ordezkatzen dudan pertsona fisiko/juridiko honen izenean jarduten dut: ______________________________________ (*enpresaren izena adierazi*). Ordezkatzen dudanaren IFZ hau da: __________. Daukadan ordezkaritza administrazio klausula berezien pleguan zehazten den moduan egiaztatzen dut.

Honako hau adierazten dut:

> Berretsi egiten dudala ______________________________ (e)ko Lizitatzaileen Erregistroak emandako ziurtagirian jasotzen diren inguruabarrak baliozkoak direla eta indarrean daudela.

*Lekua, data eta sinadura.*

FUNDACIÓN BIZKAIA
BIZKAIALDE FUNDAZIOA

# 4. ERANSKINA – ABALA

________________________________________________ erakundearen *(kreditu-erakundearen edo elkarrekiko berme sozietatearen izena)* IFZ hau da: ___________, eta helbidea *(jakinarazpenetarako eta errekerimenduetarako)*, berriz, honako hau: ____________________________ (kalea), _______ (posta kodea), ____________ (udalerria). Erakundearen izenean __________________________ _______________ jaunak/andreak *(pertsona ahalordedunen izen-abizenak)* jardungo du, eta ahalorde nahikoa du erakunde abal-emailea egintza honetan behartzeko, agiri honen atzealdean aipatzen den ahalordetik ondorioztatzen denez.

Bada, goian aipatutako erakundeak abala ematen dio honako honi:

a[1]: _____________________________________________ *(abaldunaren izen-abizenak edo sozietatearen izena)* —IFZ: ___________—, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartu azaroaren 14ko 3/2011 legegintzako Errege Dekretuan ezartzen denaren arabera. Abala ematen zaio, hain zuzen ere, Bizkaia Bizkaialde Fundazioaren aurrean honako erantzukizun hauei aurre egiteko: ____________________________________________________ *(zehaztu kontratuaren xedea edo bermatuak bere gain hartutako betebeharra)*. Eta abal horren zenbatekoa hau da: __________________________________________ euro[2].

Erakunde abal-emaileak bere erantzukizunaren pean adierazten du abaldunak Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorraren 56.2 artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituela. Abal hau solidarioki ematen da betebeharpeko nagusiari dagokionez, beren-beregi egiten zaio uko bazterketaren onurari eta Bizkaia Bizkaialde Fundazioak lehenengo errekerimendua egiten duenean ordaintzeko konpromisoa hartzen da; horretarako guztirako, men egingo zaio Sektore Publikoko Kontratuen legedian eta legedi hori garatzeko arauetan.

Abal hau indarrean egongo da Bizkaia Bizkaialde Fundazioak eta hartarako legezko ahala duenak, Aldundiaren izenean, abala deuseztatzea edo itzultzea erabakitzen duen arte, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartu azaroaren 14ko 3/2011 legegintzako Errege Dekretuan eta haren legedi osagarrian ezartzen denaren arabera.

*Tokia, eguna eta sinadura.*
*(sozietatearen izena)*
*(pertsona ahalordedunen sinadura)*

---

[1] Aldi baterako enpresa-elkarteak direnean:

- parte hartzen duten enpresen izenak eta IFZak zehaztu behar dira
- bermeak enpresa parte-hartzaile batek edo batzuek era ditzakete, betiere berme horiekin guztiekin bermetan eskatzen den kopurua lortzen bada eta berme solidarioa ematen bazaie aldi baterako elkartea eratzen duten guztiei.

[2] Kopurua letratan eta zenbakitan adierazi, gehienez ere bi (2) hamartarrekin.

FUNDACIÓN BIZKAIA BIZKAIALDE FUNDAZIOA

## 5. ERANSKINA – KAUZIO-ASEGURUAREN ZIURTAGIRIA

Ziurtagiriaren zenbakia: ______________ *(aseguru-entitatearen izena) (aurrerantzean, aseguratzailea)*. Aseguratzailearen IFZ hau da: ____________, eta helbidea, berriz, honako hau: ________________________________________ (kalea). Aseguratzailearen izenean ________________________________________ jaunak/andreak *(pertsona ahalordedunen izen-abizenak)* jardungo du, eta ahalorde nahikoa du erakunde aseguratzailea egintza honetan behartzeko, agiri honen atzealdean aipatzen den ahalordetik ondorioztatzen denez.

Bada, aseguratzaileak asegurua egiten dio honako honi:

a[1]: ____________________________________________________ *(aseguratuaren izen-abizenak edo sozietatearen izena)* —IFZ: ____________—, eta hori izango da aseguruaren hartzailea. Asegurua emango zaio (aurrerantzean aseguruduna) Bizkaia Bizkaialde Fundazioaren aurrean erantzuteko _______________ euroko[2] zenbatekoraino. Asegurua Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartu azaroaren 14ko 3/2011 legegintzako Errege Dekretuan, lege hori garatzeko araudian eta ________________________ ______________________ kontratua *(modu indibidualean identifikatu zein kontratutarako ematen den kauzioa)* arautzen duten administrazio klausula berezien pleguan ezartzen denaren arabera emango zaio, _____________ berme gisa *(adierazi zein aseguru-mota den: behin-behinekoa, behin betikoa, etab.)*. Bada, asegurua ematen zaio, hain zuzen ere, aurre egin ahal izateko arestian aipatu diren arauen eta gainerako administrazio baldintzen ondorioz asegurudunaren aurrean izan ditzakeen betebehar, zigor eta gainerako gastuei.

Aseguratzaileak bere erantzukizunaren pean adierazten du abaldunak Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorraren 57.1 artikuluan eskatzen diren baldintzak betetzen dituela.

Prima ordaindu ez arren —berdin dio ordaintzen ez dena prima bakarra den edo lehenengoa edo hurrengoak—, aseguratzaileak ez du kontratua suntsiarazteko eskubiderik izango, kontratua ez da azkenduko, aseguratzailearen estaldura ez da etenda geratuko, eta aseguratzailea ez da daukan erantzukizunetik aske geratuko, baldin eta aseguratzaile horrek bermea betearazi behar badu.

Aseguratzaileak aseguru-hartzailearen kontra legozkiokeen salbuespenak ezin izango dizkio asegurudunari aurkatu.

Aseguratzaileak bere gain hartzen du asegurudunari kalte-ordainak ordaintzeko konpromisoa Bizkaia Bizkaialde Fundazioak hari lehenengo errekerimendu egin bezain laster, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartu azaroaren 14ko 3/2011 legegintzako Errege Dekretuan eta hura garatzeko arauetan ezartzen denaren arabera.

Kauzio-aseguru hau indarrean egongo da Bizkaia Bizkaialde Fundazioak —edo haren izenean hartarako legezko ahala duenak— abala deuseztatzea edo itzultzea erabakitzen duen arte, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartu azaroaren 14ko 3/2011 legegintzako Errege Dekretuan eta haren legedi osagarrian ezartzen denaren arabera.

*Tokia, eguna eta sinadura.*
*Aseguratzailea*

---

[1] Aldi baterako enpresa-elkarteak direnean:

- parte hartzen duten enpresen izenak eta IFZak zehaztu behar dira
- bermeak enpresa parte-hartzaile batek edo batzuek era ditzakete, betiere berme horiekin guztiekin bermetan eskatzen den kopurua lortzen bada eta berme solidarioa ematen bazaie aldi baterako elkartea eratzen duten guztiei.

[2] Kopurua letratan eta zenbakitan adierazi, gehienez ere bi (2) hamartarrekin.

FUNDACIÓN BIZKAIA
BIZKAIALDE FUNDAZIOA

## 6. ERANSKINA – EKONOMI JARDUEREN GAINEKO ZERGARI BURUZKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

Nik, ______________________________ jaunak/andreak (IFZ: ___________), nire izenean edo ordezkatzen dudan pertsona fisiko/juridiko honen izenean jarduten dut: ________________________________________ *(enpresaren izena adierazi)*. Ordezkatzen dudanaren IFZ hau da: __________. Daukadan ordezkaritza administrazio klausula berezien pleguan zehazten den moduan egiaztatzen dut, eta honako hau adierazten dut:

1. Toki zergen arloan indarrean dagoen araudia aplikatuz eta, zehatzago, Ekonomi Jardueren gaineko Zerga arautzen duena aplikatuz, zerga horretan jarraian zehazten diren epigrafeetan alta eman duela adierazi behar du, eta sinadurako egunean ez du baja emanda egon behar:

| Epigrafea | Kontzeptua |
|---|---|
| | |
| | |
| | |

2. Honako hau: *(adierazi dagokion aukera)*

□ Zerga ordaindu behar du eta erkatutako azken ordainagirien kopia aurkezten du.

□ Ekonomi Jardueren gaineko Zergari buruzko ekainaren 30eko 6/1989 Foru Arauaren 5.1.g).- artikuluan zehazten den salbuespen-egoeran dago.
(Jardueraren ekitaldia hasten duten subjektu pasiboak, jarduera egiten duten zerga honen lehenengo bi zergaldietan zehar).

□ Ekonomi Jardueren gaineko Zergari buruzko ekainaren 30eko 6/1989 Foru Arauaren 5.1.h).- artikuluan zehazten den salbuespen-egoeran dago.
(Urteko eragiketa bolumena 2.000.000 eurotik beherakoa duten subjektu pasiboak).

□ Irabazizkoak ez diren erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoari emandako zerga-pizgarriei buruzko otsailaren 24ko 1/2004 Foru Arauaren 17.2 artikuluan zehazten den salbuespen-egoeran dago.

□ Beste salbuespen-egoera batzuk.

*Tokia, eguna eta sinadura.*

FUNDACIÓN BIZKAIA
BIZKAIALDE FUNDAZIOA

7. ERANSKINA.- ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA: ENPRESAREN KAUDIMEN EKONOMIKOA ETA FINANTZARIOA

Lizitazioaren xede den kontratuaren helburua[1]:

_______________________________________jaunak/andreak (NAN zk./AIZ/PASAPORTE zk.:__________), ___________________________enpresaren izenean eta haren ordezkari gisa (IFK: __________),

HAU ADIERAZTEN DU BERE ERANTZUKIZUNAREN PEAN:

Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa:

1.- Ondoren adierazitako datuak guztiz bat datozela onartutako eta erregistroan gordailututako urteko kontuekin eta lizitatzaileak amaitutako azken hiru urteetan bolumen handiena izan duen urteko ekitaldiari dagozkiola.

| ak gordailutu diren ERREGISTROA | LDIA | )ZIOAREN URTEKO BOLUMENA kanpo): |
|---|---|---|
| | | |

2.- Ondoren zehazten den arrazoi baliodun batengatik, lizitatzaileak ez dauzkala ez onartuta ez gordailututa amaitutako azken hiru urteetan bolumen handiena izan duen urteko ekitaldiari dagozkion urteko kontuak (adibidez: dagokion erregistroan kontuak aurkeztu beharrik ez izategatik, edo enpresa sortu berria izategatik.). Arrazoia:

........................................................................................................................._____________________________________________
______________

3.- Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa egiaztatzeko, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren aitorpeneko 303 eta/edo 390 ereduak edo antzekoak eta Sozietateen gaineko Zergaren aitorpeneko 200 eredua edo antzekoa aurkeztu duela eta arrazoia hau dela (jarri X bat):

☐ Enpresaburu izatea, kontuak merkataritza-erregistroan inskribatu beharrik ez duena.
☐ Aurreko paragrafoan adierazitako arrazoi balioduna

| ʒitako dokumentazioa, BEZari edo ateen gaineko Zergari buruzkoa. | LDIA | )ZIOAREN URTEKO BOLUMENA kanpo): |
|---|---|---|
| | | |

Hala jasota gera dadin, honako hau sinatzen dut, __________(e)n, 20__________(e)(a)n.

(Lekua, eguna eta enpresaren sinadura eta zigilua)

(1) *Jarri kontratuaren xedearen izen osoa, KARATULAKO A.-KONTRATUAREN HELBURUA atalean agertzen den moduan.*

FUNDACIÓN BIZKAIA
BIZKAIALDE FUNDAZIOA

**8. ERANSKINA**. EGINDAKO ZERBITZUEN ZERRENDARI BURUZKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA:

Lizitazioaren xede den kontratuaren helburua[1]:

_______________________________________________jaunak/andreak (NAN zk./AIZ/PASAPORTE zk.:__________),____________________________________enpresaren izenean eta haren ordezkari gisa (IFK: __________),

HAU ADIERAZTEN DU BERE ERANTZUKIZUNAREN PEAN

Kontratuaren helburu diren zerbitzu edo lanen berdinetan edo antzekoetan lortutako esperientzia, ___. **urteari**[2] dagokiona, beheragoko zerrendan adierazitakoa da:

| ZERBITZUA EDO LANA[3] | Aipatutako urtean exekutatutako ZENBATEKO OSOA (BEZa kanpo) | Jasotzailea | Honako honek emandako egiaztagiria: |
|---|---|---|---|
| $Z_1$ | | | |
| $Z_2$ | | | |
| $Z_3$ | | | |
| $Z_4$ | | | |
| $Z_5$ | | | |
| $Z_6$ | | | |
| $Z_n$ | | | |
| Aipatutako urtean exekutatutako **ZENBATEKO OSOA** (BEZa kanpo) | BATURA | | |

*(1) Jarri kontratuaren xedearen izen osoa, KARATULAKO A.-KONTRATUAREN HELBURUA atalean agertzen den moduan.*

*(2) Adierazi azken urteen artean zeinetan eman edo egin den zerbitzu edo lan gehien.*

*(3) Adierazi zerbitzu edo lanaren titulu osoa.*

Hala jasota gera dadin, honako hau sinatzen dut, _________(e)n, 20__________(e)(a)n.

(Lekua, eguna eta enpresaren sinadura eta zigilua)